

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Bideon egia

EGIA
 mendiotako bide zaharrok ere
 bada.
 Artaso-maldako pleguan
 hitz sakon,
 mila ta mila pauso
 neke ta antsiatzkoren
 errealitate hunkigarritz,
 lurraren sakonean
 bideok,
 esaldi luzetan.

Arantzazuko mendi-bide guztiak sarritan ibiliak zituen Gandiagak; ez pauso bizkorrean bere indarrak neurtzeko bakarrik; sarritan soseguz eta barne-gogoeta sakonean; zentzumenak erne beti. Hainbat olerkitan kantatu zituen Arantzazuko bideek pizten zizkieten sentimenduak: "Ezer ez dut / mendi-bideok adina / ongi ezagutzen", dio horietako batean.

Giza historiaz eta istorioez, bidarien pentsamenduen, atseginen eta atsekabeen, haien hitzen eta solasaren oihartzunak entzuten ditu bideotan. Erromesen, baserritarren, artzainen, basozainen, mendizaleen: hainbaten urratsen aztarnak sumatzen ditu bideotan, bizi eta

ozen; haien oinatzak ikusten ditu; haien oin-hotsak entzuten ditu.

Honela dio bere eskuizkribuetako batean: *"Zenbat hanka-marka ikus ezinago horien denen azpitan, gizon baten sasoiak pauso zangarrez idatziak, gizon helduaren soseguz eta patxadaz emandakoak. Noiz asmatuko ote dute bide-zintak entzun ahal izateko magnetofonia edo! Bide askotan gertatu zait gaur bidezidor honetan gertatzen zaidana. Gizonaren igarotzea azaletik begiratuta gauza arina litzateke, baina zergatik ez dakidala, bidez doan gizona bere pentsamendu eta sentipenetan ikusi oi dut eta bideak nekagarri zaizkit hainbeste oihartzun hain desberdinez hoska".*